

Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Bilboko Alde Zaharraren merkataritza sustazeko laguntzak eskuratzeko Deialdia.
20917.

1. AURKEZPENA

Bilbao Ekintza Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal-erakundea da, Bilboko Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Sailera atxikita dagoena; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen dituela.

Helburuetako bat Bilboko enpresen lehiakortasuna hobetzea da. Enpresa txikiak eta saltokiak bereziki Bilboko garapen eta ongizatearen motorrak direla jakitun izanik –enplegua sortzeko eta hiriko dinamismoa eta garapenaren alde egiteko duen gaitasunagatik– Bilboko Alde Zaharreko txikizkako merkataritza sektoreari berariaz babesa emateko programa bat abian jartzea erabaki da, honako xede honekin:

- Ekintzailtza eta berrikuntza sustatzea ideia ekintzaileak eta haien finkatzea babesteko, bai eta gaitasun eta teknologia garapena ere, eta erantzukizun soziala sustatzea.
- Merkataritza sustatzea Bilboko eta bertako biztanleen garapen ekonomiko, estrategiko eta solidariorako, Bilboko enpresen garapena eta lehiakortasun babestuz, enpresa txiki eta ertainak lehenetsiz, saltokiak batez ere.

Arrazoi hori dela eta, udalerrri osoan oro har aplikagarriak diren Bilboko enpresei eskaintzen zaizkien laguntzez gain, Bilbao Ekintzak Alde Zaharreko auzoan dauden saltokien esku neurri gehigarri batzuk jarri ditu, Alde Zaharraren Proiektu Estrategikoaren barruan daudenak. Azken hori Agintaldiko Planean adierazitako proiektu estrategikoetako bat da.

Diru-laguntzen deialdi honen xedea da Alde Zaharreko saltokien artean lehiakortasunaren bitartez garapenaren alde egin dezaten.

Ekintzaileak eta saltokiak laguntzeko programako estrategiak eta jarduerak lehentasunezko guneen merkataritza birgaitzearen inguruan egituratzen dira, Alde Zaharra, kasu honetan. Gune horiek biziberritzeko prozesurako funtsezkoa da merkataritza jarduera sustatzea, eta hura inguru horren susperraldi ekonomikorako indarguneetako bat da.

Merkataritza-funtzio ekonomikoa sustatu nahi da eta gune hori aktibatu, pertsonen fluxua eta jarduera sortuko duten jarduera nahiz ekimen berrien bitartez; horrekin batera, bertan lehendik dauden saltokien lehiakortasuna hobetzea. Ekonomiaren berrindartzea sustatu eta garatzeko funtsezko jardueretako bat aisialdirako azalera mugiaraztea da (gutxiegi erabilitakoak), merkataritzako lokalak, kasu honetan.

Gainera, laguntza lerro horiek eskuratu ahalko dira Alde Zaharreko saltokien titulartasunean dauden intsuldatze edo ondorengotzako egoeretan. Beraz, intsuldatze edo ondorengotza egoeran dauden saltokiak mantendu eta jarraipena eman nahi zaie, ekonomikoki bideragarriak diren guztiak itxi ez daitezen.

Bilbao Ekintzak deialdi honetan jasotzen diren diru-laguntzak eskaintzen ditu, eta hura finantzatzeko Bilboko Udalaren funtsak ditu.

Bestalde, eta udaleko diru-laguntzak zuzen kudeatze aldera, Bilboko Udalak, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako arauzko eskakizunei erreparatuz, 2016ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran ondorengo onartu zuen: diru-laguntzak emateko oinarriak aratzen dituen ordenantza orokorra Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko udalaren erakundeek egindako deialdiaren bidez, eta haren azken onarpena 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (138. zk.).

Azaldutako guztian oinarrituz, Bilbao Ekintza, EPELen Administrazio Kontseiluak 2017ko martxoaren 21ean egindako bileran, 2016ko Bilboko Alde Zaharreko Saltokientzako Diru-laguntzen Planaren deialdia onartu du 2016. urterako.

2. HELBURUA

Bilbao Ekintza, EPELek Alde Zaharrean garatutako programa honen bidez auzoko merkataritza sustatu nahi du eta asmo hauek ditu:

- 2.1. Ekintzailletza babestea, negozio berrien sorrera bultzatzeko eta mesedetzeko helburuarekin.
- 2.2. Funtzionamenduan dauden saltokiak hobetzeko laguntza eta babes ematea, saltokien lehiakortasuna eta produktibitatea areagotzeko.

Adierazitako xedea lortzeko asmoz, auzo horretako saltokietarako diru-laguntzen lerro bat ezartzen da, itzuli beharrik gabekoak direnak.

3. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Laguntza horiek honako baldintza hauek betetzen dituzten saltokiek eskuratu ahalko dituzte:

- 3.1. Mikroenpresa edo enpresa txiki eta ertaina (ETE) definizioa izatea Europako Batzordearen 651/2014 Araudiaren arabera. (Ikusi definizioa **I. eranskinean**). 2.1. atalean aipatzen diren kasuetan, ekintzailletza-proiektu bat daukaten norbanakoak ere izan daitezke. Emandako diru-laguntza finkatu, bai eta ordaintzeko ere, ezinbesteko baldintza izango da jarduera martxan jartzea, dagozkion agiriak aurkeztuz egiaztatu beharko dena.
- 3.2. Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda izatea, edo negozioaren irekiera Alde Zaharreko lokalean egin izana, eta hura indarrean izatea.
- 3.3. Jarduera nagusi gisa II. eranskinean jasotako ekonomia jardueren gaineko zergako taldeetan edota epigrafeetan sartutakoren bat izatea.
- 3.4. Negozioaren lokala edota negozio horren benetako jarduera Bilboko Alde Zaharrean kokatzea, III. eranskinean jasotako haren definizioaren arabera. Gainera, onuradun izan ahalko dira Bilboko beste auzo batzuetan edo beste udalerrri batzuetan lehendik dauden saltokiak, baina haien garapen proiektuak Bilboko Alde Zaharrean establezimendu berri bat ezartzea ekarriko duena.

- 3.5. Lokala sestraren mailan kokatuko da; merkataritza guneetan edo udal merkatuetan dauden establezimenduak ere sartuzat joko dira.
- 3.6. 2.1. puntuan aipatutako kasuan, ezinbesteko baldintza izango da negozio-plan bat egin izana Bilbao Ekintza, EPELeko Enpresa Sustapenerako Alorreko zerbitzuen bitartez. Horrez gain, plan horrek Bilbao Ekintzako teknikarien oniritzia izan beharko du.
- 3.7. 2.2. puntuan aipatutako kasuan, ezinbesteko baldintza izango da lehiakortasuna hobetzeko plan bat egin izana Bilbao Ekintza, EPELeko Enpresa Sustapenerako Alorreko zerbitzuen bitartez. Horrez gain, plan horrek Bilbao Ekintzako teknikarien oniritzia izan beharko du.
- 3.8. Egunean egotea bai administrazio publikoekiko dagozkion zerga betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan ere. Bilboko Udalarekin duten zerga egoera Bilbao Ekintza EPELek egiaztatuko du ofizioz.
- 3.9. Arau-hausteak egiteagatik diru-laguntzak jasotzeko eskubiderik gabe utzi ez izana.

Baldintza horiek bete beharko dira saltokia deialdi hau arautzen duten laguntzetan parte hartzen duen denbora tarte guztian zehar.

4. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten dietenak. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak dira, deialdi honetan jasotako kontzepturen bati banaka atxikita egoteaz gain, haien enpresa garapenerako prozesuan saltokiaren jarduera zehatz baten estrategia bati erantzuten dioten gastuak dituztenak, aurkeztutako eta Bilbao Ekintza, EPELek onetsitako enpresa-garapenerako planaren arabera.

Zehazki, honako hauen gastuak diruz lagundu ahalko dira:

- a) *Merkataritza lokalen jarduerari lotutako ekipamendua, altzariak eta makinaria erostea.*
- b) *Merkatuko prospekzio eta azterketa lanen ondoriozko gastuak.*
- c) *Komunikazio, publizitate, merkataritza sustapenean eta abarren gastuak.*
- d) *Informatizazio eta garapen teknologikotik ondorioztatutako gastuak eta inbertsioak*

Horrez gain, 2.1. atalean jasotako ekimenen kasuan, ondoko hauek ere diruz lagunduko dira:

- a) *Proiektua edo negozioa abian jartzearekin lotutako gastuak.*
- b) *Aholkularitzari edo proiektua abian jartzeari zuzenean lotutako beste gastu edo inbertsio batzuk, Bilbao Ekintzaren irizpide teknikoa betez, baldin eta merkataritza establezimenduaren lehiatzeko kokapena nabarmen hobetzen badute.*

Lokala modernizatzeko, zabaltzeko edo egokitzeko obren edo zaharberritzeen gastuak ez dira inolaz ere barne hartuko.

Balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagun daitekeen kontzeptu gisa sartuko, hura enpresa eskatzaileak kentzen ez duen kasuetan salbu..

5. ONURAK

2.1. puntuan jasotako kasuan, aurreko idatz-zatian jasotako gastuen edota inbertsioen % 50 diruz lagundu ahal izango dira, eta erakunde onuradunak gehienez 6.000 euro jarri ahalko du.

2.2. puntuan jasotako kasuan, aurreko idatz-zatian jasotako gastuen edota inbertsioen % 50 diruz lagundu ahal izango dira, eta erakunde onuradunak gehienez 3.000,00 euro jarri ahalko du.

Laguntza ekonomiko horiek ez dira itzuli beharrik izango.

6 - DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO, ESI EITZEKO ETA ORDAINTEKO PROZEDURA

6.1. Eskabideak aurkeztea

Diru-laguntza hauek norgehiagoka araubide sinplearen arabera deitzen dira. Prozedura interesdunek aurrez eskatuta hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu ahal izango dute oinarri hauen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera eta 2017ko azaroaren 15era arte.

Diru-laguntza eskabideak Bilbao Ekintzaren Enpresa Sustapen Arlora bideratuko dira deialdi honen eranskinetan ageri diren ereduetan, eta elektronikoki aurkeztuko dira dokumentazioa ondorengo helbide elektronikora bidaliz: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus. Eskabideak aurrez aurre ere aurkeztu daitezke Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kalea, 5, 3. solairua).

6.2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

6.2.1. 2.1. puntuan jasotako kasuan, eskatzaileek honako hau aurkeztu beharko dute:

a) Eskabide-orria , erakundearen ordezkariak sinatua; IV eranskinean dagoen modeloaren arabera, adierazpen hauek hartuko ditu barnean:

- Helburu berarekin lortutako diru-laguntzen zerrenda, laguntzen emaileak eta zenbatekoak zehazturik, eta etorkizunean beste diru-laguntzarik jasoz gero Bilbao Ekintzari horren berri emateko konpromisoa.
 - Deialdiaren eta horren edukiaren jakitun da, eta bertan eskatutako baldintzak betetzen ditu.
 - Diru-laguntzaren baldintzak betetzeko konpromisoa.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, haren bitartez adieraziko du eskatzailea ez dagoela laguntzen onuradun izatea eragozten duten kasuetako ezeinetan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Bilboko Udalarekin zerga-betebeharrei dagokienez, egunean dagoelako adierazpena.
- b) Jarraian aipatzen den dokumentazioa, halakorik izatekotan. Bestela, justifikazioa egiteko unean egingo dute.
- Erakundearen eratze-eskritturen kopia (hala badagokio), eta IFZ.
 - Sinatzen duen pertsonaren aldeko ahalordearen kopia eta haren NANA.
 - Ekonomi jardueren gaineko zergan alta emanda izatea.
 - Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiriak. Dokumentu horien ordezkariak honako hauek emandako ziurtagiria aurkeztu ahal da: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, Estatuko Lizitatzailen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofiziala, edo Europako Erkidegoko Saillkapen Ziurtagiria.
- c) Bilbao Ekintza, EPELeko Enpresa Sustapenerako Alorrarekin batera egin eta onetsitako negozio-plana.
- d) Diru-laguntza eskatzen den diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen aurrekontuak, edo hala badagokio, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak egiaztatzen dituzten fakturak.

6.2.2. 2.2. puntuan jasotako kasuan, eskatzaileek honako hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskabide-orkia , erakundearen ordezkariak sinatua; V eranskinean dagoen modeloaren arabera, adierazpen hauek hartuko ditu barnean:
- Helburu berarekin lortutako diru-laguntzen zerrenda, laguntzen emaileak eta zenbatekoak zehazturik, eta etorkizunean beste diru-laguntzarik jasoz gero Bilbao Ekintzari horren berri emateko konpromisoa.
 - Deialdiaren eta horren edukiaren jakitun da, eta bertan eskatutako baldintzak betetzen ditu.
 - Diru-laguntzaren baldintzak betetzeko konpromisoa.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, haren bitartez adieraziko du eskatzailea ez dagoela laguntzen onuradun izatea eragozten duten kasuetako ezeinetan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Bilboko Udalarekin zerga-betebeharrei dagokienez, egunean dagoelako adierazpena.

- b) Ondoren aipatzen den dokumentazioa:
- Erakundearen eratze-eskrituren kopia (hala badagokio), eta IFZ.
 - Sinatzen duen pertsonaren aldeko ahalordearen kopia eta haren NANA.
 - Ekonomi jardueren gaineko zergan alta emanda izatea.
 - Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiriak. Dokumentu horien ordezkariak honako hauek emandako ziurtagiria aurkeztu ahalko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, Estatuko Lizitatzailen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofiziala, edo Europako Erkidegoko Saillkapen Ziurtagiria.
- c) Bilbao Ekintza, EPELeko Enpresa Sustapenerako Alorrarekin batera egin eta onetsitako lehiakortasuna hobetzeko plana.
- d) Diru-laguntza eskatzen den diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen aurrekontuak, edo hala badagokio, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak egiaztatzen dituzten fakturak.

Bilbao Ekintzak eskatutako laguntza ebaluatzeko beharrezkoa deritzon edozein agiri eskatu ahalko dio eskatzaileari. Era berean, ekintzen kontrolerako eta jarraipenerako beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Eskabideak betekizunak bete ezean eta oinarri hauei jarraiki eskatzen diren agiriak erantsi ezean, interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea izango duela akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak bidaltzeko. Jakinarazpenean beren-beregi ohartaraziko zaio, ezen, eskatutakoa bete ezean, eskabidea gaitzetsizat joko dela, horrela ebatzi ondoren.

Eskaeren balorazioa hurrenkera kronologikoaren arabera egingo da. Xede horrekin, eskabidea aurkeztutzat joko da, osatua dagoenean, antzeman diren ahazteak konpontzea barne.

6.3. Eskaeren instrukzioa eta balorazioa

Deialdi honek instrukzioko organo bat du, eta hura Bilbao Ekintzako Merkataritza Arloari atxikitako langile teknikoek osatzen dute.

Aurkeztutako eskaeren ebaluazioa Balorazio batzorde batek egingo du, eta hura lehendakaritza, batek, ordezkari batek eta batzordekide batek osatuko dute. Enpresa Sustapenerako arduradunak hartuko du lehendakaritza, merkataritzako arduraduna izango da batzarkidea eta idazkaritza lanak teknikari batek egingo ditu –instruktoea ez dena–.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean, eta hari buruzko txosten bat egingo du.

Instrukzio organoak behin betiko ebazpen proposamena egingo du espedientea eta Balorazio Batzordeak egindako txostena ikusirik, eta bertan diru-laguntza ematen edo ukatzen den adieraziko da.

6.4. Ebazpena

Bilbao Ekintza EPELen zuzendaritza nagusia da prozedura ebazteko organoa.

Ebazpena emateko epea hilabetekoa izango da gehienez, eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaeraren ebazpena hamar egun balioduneko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei, ebazpena emandako egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsi dela ulertuko da. Hala eta guztiz ere, epe hori igaro bada ere, Bilbao Ekintza, EPELeK dagokion ebazpena eman eta jakinarazi ahal izango du.

Aurrekontuko partida deialdi honetan jasotako kopurura mugatuta dagoela ikusirik, hura agortzeak eskatutako diru-laguntzak ukatzea ekarriko du.

Erakunde eskatzaileei diru-laguntza eskaera onartu edo ukatu den jakinaraziko zaie, bai eta guztizko zenbatekoa ere, hala badagokio. Eskaerek sorraraz ditzaketen ebazpenak eskatzaileek adierazten dituzten bitartekoen bidez jakinaraziko dira.

Diru-laguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusian aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da.

6.5. ordaintzeko prozedura eta iustifikazioa

2.1. puntuan jasotako kasuan, erakunde onuradunek ordaintzeko eskabide bakarra egingo dute, ebazpenean emandako kopuruaren zenbatekoan. Saltokia irekitzen denetik hiru hilabeteko gehieneko epean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute (salbu eta dagoeneko aldeztu aurretik aurkeztu badute):

- Erakundearen eratze-eskrittaren kopia (hala badagokio), eta IFZ.
- Sinatzen duen pertsonaren aldeko ahalordearen kopia eta haren NANA.
- Ekonomi jardueren gaineko zergan alta emanda izatea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiriak. Dokumentu horien ordeztu honako hauek emandako ziurtagiria aurkeztu ahal da: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala, Estatuko Lizitatzailen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofiziala, edo Europako Erkidegoko Sailkapen Ziurtagiria.
- Eskabidean onartutako aurrekontuen fakturak eta haien ordainagiriak.

600 eurotik gorako fakturen ordainketa bankuko agiri bidez egiaztatu beharko da, hura transferentziaren egiaztapena, helbideratzearena edo antzeko beste bat izanda ere. Faktura bat ezingo da bat baino gehiagotan zatikatu, haren zenbatekoa jaitsiz baldintza hori betetzea saiheste aldera.

- Eskatutako aurrekontuak (3) diru-laguntzari egotzitako gastuetako batek azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga gainditzen duenean; errege dekretu horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen da kontratu txikietarako (18.000 euro).
- Bankuko datuen fitxa, ereduaren arabera.

2.2. puntuan jasotako kasuan, erakunde onuradunek ordaintzeko eskabide bakarra egingo dute ebazpenean emandako kopuruaren gehieneko zenbatekoan, diru-laguntza jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean gehienez eta, horretarako, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Eskabidean onartutako aurrekontuen fakturak eta haien ordainagiriak.
Fakturak ez dira 2017a baino lehenagokoak izango. Faktura horiek ezingo dira aurkeztu beste erakunde batzuen diru-laguntzak justifikatzeko, egotzi gabeko portzentajea salbu. 600 eurotik gorako fakturen ordainketa bankuko agiri bidez egiaztatu beharko da, hura transferentziaren egiaztageria, helbideratzearena edo antzeko beste bat izanda ere. Faktura bat ezingo da bat baino gehiagotan zatikatu, haren zenbatekoa jaitsiz baldintza hori betetzea saiheste aldera.
- Eskatutako aurrekontuak (3) diru-laguntzari egotzitako gastuetako batek azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga gainditzen duenean; errege dekretu horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen da kontratu txikietarako (18.000 euro).
- Bankuko datuen fitxa, ereduaren arabera.

6.6. Diru-laguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna.

Beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk (estatukoak edo nazioartekoak) emandako beste edozein diru-laguntzak jasotzea onartzen da, baldin eta diru-laguntzaren kopuru osoak ez badu diru-laguntzarako bideratutako gastuaren kostua gainditzen, bera bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera.

7. BETEBEHARRAK. EZ BETETZEA ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA

7.1. Betebeharrak.

Erakunde onuradunen betebeharrak dira:

- a) Bilbao Ekintza E.P.E.Len aurrean eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, gastua eta haren ondorengo ordainketa egin dela eta diru-laguntza emateko edo izateko helburua betetzen dela justifikatzea.

- b) Bilbao Ekintza E.P.E.L. ek egin ditzakeen egiaztapen-jarduerei men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organo eskudunek, naziokoek nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-kontrolako jarduera guztiei, eta aipatutako jardueren barruan eskatzen zaizkien guztiak aurkeztu beharko dituzte.
- c) Diru-laguntza jaso duten jarduerak finantzetako beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu badira, hori Bilbao Ekintza E.P.E.L ari jakinarazi beharko zaio. Horien guztien berri izan eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpena egiaztatu baino lehen, araudian zehazten den eran. Dena dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura 39/2015 legean ezarritakoari kalterik egin.
- e) Kontabilitateko liburuak, bideratutako erregistroak eta gainontzeko dokumentuak behar bezala ikuskatuta eta eskura izatea, merkataritzako legediak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken sektoreko aginpideak exijitutakoaren arabera. Horretaz gain, Bilbao Ekintza E.P.E.L. ek eskatutako kontabilitate-egoerak eta berariazko erregistro guztiak onartuko ditu, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak egoki erabiltzea bermatzeko helburuarekin guztiak ere.
- f) Jasotako funtsak aplikatzeko egiaztagiria gorde beharko dituzte, elektronika-agiriak barne, agiri horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatzekoak direlako.
- g) Egindako ekintzen finantzaketa zabaltzea, erabilitako euskarrietan Bilbao Ekintza E.P.E.L. aren logotipo ofiziala txertatuz, bai eta bi hizkuntza ofizialak ere (euskara eta gaztelania), ekintzen publizitateko elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan. Gisa berean, diru-laguntzaren xede den jarduerari lotutako sustapen esku-hartze publikoak eta hala dagokionean megafoniaz ematen diren mezuak elebidunak izango dira, euskara eta gaztelania ordena horretan erabiliz.
- h) 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren, 37. artikuluan bildutako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
- i) Proiektuaren garapen-baldintzei buruzko 13. atala betetzea.
- j) Bilbao Ekintzak nahitaez justifikatzeko eredu zehatzak erabiltzea xeda dezake, fiskalizazio-zeregina errazagoa izan dadin. Bilbao Ekintzak justifikazio-kontuarekin batera Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren (ICAC) menpeko Kontu-ikuskarien Erregistro Ofizialean jardun den kontu-ikuskarri baten txostena aurkeztea xeda dezake. Txosten horretan justifikazio-kontuaren egokitasuna azaldu beharko da (memoria ekonomikoa nahiz teknikoa kontuan hartuta) eskatzen diren betebeharrak betetzeari dagokionez. Onuraduna urteko kontuak ikuskatzera behartuta baldin badago, justifikazio-kontua kontu-ikuskarri berberak burutuko du; bestela, hark izendatuko du nork burutuko duen. Araudi erregulatzailerak exijitzen dituen dokumentu, erregistro eta liburu guztiak kontu-ikuskarriaren esku jarri beharko ditu onuradunak.
Betebehar hori eskatutako diru-laguntza eman ostean sinatzen den hitzarmenean zehaztuko da.

7.2. Itzulketa

Bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea; horrez gain, diru-laguntza ordaindu den unean hasi eta diru-laguntza itzuli behar dela erabaki den egunera arteko berandutzako interesak eskatuko dira, 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren, 37. artikuluan ezarritako kasuetan.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura 39/2015 Legearen, administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoaren, VI. tituluaren jasotako administrazio prozeduren gaineko xedapen orokorrek zuzenduko dute; nolana ere, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Araudian ezarritako espezialitateak bete ahalko dira.

Erakunde onuradunaren betetzea erabateko betetzera modu esanguratsu batean hurbiltzen denean eta hark bere konpromisoak betetzeko jardura bat egin duela zalantzarik gabe egiaztatzen duenean, itzuli beharreko zenbatekoa diru-laguntzaren xede den jardueraren betetze kopuruak edo mailak zehaztuko du, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

7.3. Arau-hausteak eta zigorrak

Aplikagarriak diren administrazioko arau hauste eta zigorren araubidea 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren, IV. tituluaren ezarrikoa izango da.

Diru-laguntzen alorreko zigorrak administrazio espedientearen bidez jarriko dira eta, nolana ere, pertsona edo erakunde interesdunari entzunaldia emango zaio dagokion erabakia hartu aurretik, eta hura izapidetuko da, 39/2015 Legearen 64. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko puntuak aipatutako administrazioko zehapen espedientea zehapen ahalmenaren egikaritzea arautzen duen estatuko araudiak araututakoa izango da, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Araudian jasotako espezialitateekin.

8.-ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Ekintzak hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jardura-programetan diharduen pertsonala edozein informazioaren jakitun suertatzen bada programa horietako laguntza jasotzaileei buruz, delako informazio hori soilik erabiliko da programaren helburuetarako. Horrexegatik, hain zuzen ere, beharrezkoa denean kanpo-aholkularien lana, programak garatzeko, Bilbao Ekintza EPELeK konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die beren zereginak direla medio ezagut dezaketen informazioaren tratamenduari dagokionez.

9. AURREKONTUAREN KONTSIGNAZIOA

Bilbao Ekintzak deialdi honetan jasotako diru-laguntzetarako kopuru hauek bideratuko ditu:

- a) 2.1. puntuan jasotako kasurako, HIRUROGEI MILA EURO (60.000,00 €)
- b) 2.2. puntuan jasotako kasurako, BERROGEITA HAMAR MILA EURO (50.000,00 €)

10. LAGUNTZA PROGRAMAREN INDARRALDIA ETA GARAPENA

Laguntza-programaren deialdia 6.1. atalean ezarritako epean aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaie.

Programa indarrean egon bitartean beharrezkotzat jotzen bada haren alderdietakoren bat garatzea edo programaren muina aldaraziko ez duen egokitzapenen bat egitea, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Administrazio Kontseiluak ahaldundurik egongo da egin beharreko aldaketei ekiteko, eta horien berri eman beharko dio Kontseiluari aldaketen erabakia hartu ondoren egiten den lehenbiziko bileran.

11.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Bilbao Ekintzak jakinarazi du oinarri hauen bidez aurkeztutako eskabidek izapidetzean sortzen diren agirietan adierazitako datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELen (Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo) jabetzapeko fitxategi batean jasoko direla, Enpresa Sustapenerako Alorrak ematen dituen zerbitzuak kudeatzeko asmoz.

Nolanahi ere, interesduna horren jakitun geratzen da eta baimena ematen du bere datuak helburu horretarako erabil daitezen eta aholkularitza-enpresek, erakunde publikoek, fundazioek eta finantza-erakundeek datu horietarako irispidea izan dezaten enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekari jarduteko eta lan-merkatuari buruzko azterketak egiteko.

12. EMANDAKO LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Diru-laguntzen gaien indarrean dagoen araudia betez, Bilbao Ekintza E.P.E.L ek emandako diru-laguntzak argitaratuko ditu bere webgunean eta aldizkari ofizial egokietan.

13.- PROIEKTUAK GARATZEKO BALDINTZAK.

Diruz lagundutako proiektuen garapenak ezin izango ditu urratu hirugarrenei legezko edozein tresnaren bitartez aitortutako eskubideak, nazioartekoak zein nazionalak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala barne.

Halaber, 1083/2006 Araudiko (EE), I. tituluko IV. kapituluko 16. eta 17. artikuluetan jasotako oharren arabera, Bilbao Ekintzak enpresei eta enpresak sortzeko proiektuei laguntzeko dituen tresnen bitartez, erakunde onuradunek gauzatzen duten merkataritza-praktikak araudi horretan jasotako irizpideak errespetatu beharko ditu; horrenbestez, ingurumena babestu eta hobetzeko sustapenarekin eta garapen iraunkorrarekin zerikusia duten jardunbide egokien inguruan sentsibilizatzea bilatuko du, bai eta enpresen barruan lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari lotutako jardueri dagokienez ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, minusbaliotasunean, adinean edo sexu orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Azkenik, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat etorriz, onuradunek euren proiektua gauzatu eta zabaltzeko euskara eta gaztelania erabiliko dituzte; hala ere, proiektuen esparruak hala eskatzen duenean, beste hizkuntza batzuk ere erabiltzeko aukera izango dute.

14.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetan aurreikusi ez diren alderdi guztietarako, Bilboko Udalak, bere erakundeek eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra aplikatuko dute, bai eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa eta, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako haren araudia ere, eta, ordezko gisa, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen ordenantzaren erreferentziak honako lege hauen arabera egin direla ulertuko da: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa, indarrean sartzen direnetik aurrera.

Era berean, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Eusko Jaurlaritzarenak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako diru-laguntzei buruzkoak, xedatu duena aplikagarria izango da, gainerako arau osagarriekin batera.

15.- INDARREAN SARTZEA.

Deialdi hau haren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.

16.INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Bilbon, 2017ko martxoaren 21ean

XABIER OTXANDIANO MARTÍNEZ
Bilbao Ekintza, E.P.E.L.eko Presidentea

I. eranskina- ETEren definizioa: 2008ko abuztuaren 6ko Batzordearen 800/2008 Araudiko I. eranskinaren arabera, laguntza maila zehatz batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak adierazten dituen Tratatuaren 87. eta 88. artikulua aplikatuz:

1. artikulua

Enpresa

Enpresatzat jotzen dira jarduera ekonomikoa garatzen duten entitate guztiak, forma juridikoa gorabehera. Bereziki, enpresatzat jotzen dira artisautza-jarduera edo banakako edo familiako beste jarduera batzuk egiten dituzten entitateak, pertsonen sozietateak eta modu erregularrean jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak.

2. artikulua

Enpresen kategoriak zehazten dituzten langile kopuruak eta finantza mugak.

1. Mirkoenpresa, enpresa txiki eta ertaina (ETE) kategoriaren barruan daude 250 pertsona baino gutxiagoko enpresak, eta urteko 50 milioi eurotik gorako negozio-bolumena ez dutenak edo 43 milioi eurotik gorako urteko balantze orokorra ez dutenak.
2. ETE kategorian, enpresa txikia 50 pertsona baino gutxiagoko enpresa da, urteko negozio bolumenak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroak gainditzen ez baditu.
3. ETE kategorian, mikroenpresa 10 pertsona baino gutxiagoko enpresa da, urteko negozio bolumenak edo urteko balantze orokorrak 2 milioi euroak gainditzen ez baditu.

II. eranskina- JEZ Epigrafeak Bilboko Alde Zaharreko Merkatarientzako Diru-laguntzak

64. MULTZOA

- **641. TALDEA.** Fruta, barazki, ortuari eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.
- **642. TALDEA.** Haragi eta hondakinen; haragi gai eta haragiki landuen, arrautza, hegazti, abeletzeko unxi eta ehizakien; eta beraien ekoizkin eratorrien txikizkako merkataritza.
- **643. TALDEA.** Arrainen eta arrantza akuikulturako beste ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
- **644. TALDEA.** Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, baita esne eta esnekien txikizkako merkataritza ere.
- **645. TALDEA.** Mota guztietako ardo eta edarien txikizkako merkataritza.
- **646. TALDEA.** Tabako lanen eta erretzaileen gaien txikizkako merkataritza.
- **647. TALDEA.** Oro har, jangaien eta edarien txikizkako merkataritza.

65. MULTZOA

- **651. TALDEA.** Ehungintzagai, jantzigintzagai, zapata, larruazal eta larrungintza gaien txikizkako merkataritza.
- **652. TALDEA.** Sendagaien eta farmaziako produktuen txikizkako merkataritza; drogeria eta garbiketako gaien txikizkako merkataritza; lurrindegia eta era guztietako kosmetikoak; eta produktu kimikoenak oro har; belar dendetako landare eta belarren txikizkako salmenta.
- **653. TALDEA.** Etxeko ekipamendu eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.
- **654. TALDEA.** Lehorreko ibilgailuen, aireontzien eta itsasontzien eta makineriaren txikizkako merkataritza, akzesorioena eta ordezeko piezena.
- **656. TALDEA.** Altzari, janzki, etxeko tresna arrunt eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.
- **657. TALDEA.** Musika tresnen, oro har, eta horien akzesorioen txikizkako merkataritza.
- **659. TALDEA.** Txikizkako bestelako merkataritza.